



**ITSASONDOKO
UDALA**



ARROPA ZAHARREN BILKETA ZERBITZUA BERTAN BEHERA

COVID-19 pandemiaren bilakaeraren ondorioz, bihartik aurrera, **martxoak 31**, eta bestelako abisurik jaso arte, **bertan behera geratzen da arropa zaharren bilketa zerbitzua**, ohiz-kanpoko egoera honetan ezin baita ziurtatu bildutako arroparen segurtasuna eta gainera bildutakoa ezin da prozesatu, lan gehienak eskuz egiten baitira.

Mankomunitateak **arropa birziklatzeko edukiontziak zigilatu** egin behar ditu eta **edukiontzietan kartelak** jarriko ditu herritarrei egoera honen berri emateko.

Deia luzatzen zaie herritarrei, arropa **etxean gorde eta arropa biltzeko edukiontzietan sar ez dezaten**.

Bestalde, gogoratu bolumen handiko **etxeko traste zaharren bilketa zerbitzua ere bertan behera** utzi zela duela aste bete.

Gaineratiko hondakinen bilketa mantentzen da: errefusa/pixoihalak, organikoa, papera, kartoia, ontzi arinak, beira, sukaldeko olioia eta pilak.

Eta **gogoratu**: eskularruak, maskarak eta betaurrekoak ez dira inoiz edukiontzi horian sartu behar baizik eta errefusarentzako edukiontzian.

<http://www.sasieta.eus/euskara/albisteak/arropa-zaharren-bilketa-zerbitzua-bertan-behera>